

Kaxkoan 'konbibentzia paktoa' sagardotegi garaian

■ Kaxko auzo elkarteak, ostalariak eta udalak egin dute ■ Udalak garbitasuna zorrozuko du, tabernek isteko ordua moldatu eta kaxkoko bizilagunek denkantsu gehixeago izango dute.

TXOTX denboraldia mugimendu haundiko garaia izaten da Hernanin, eta batez ere, Hernaniko kaxkoan. Oso metro karratu gutxitan interes ezberdinek topo egiten dute elkarrekin eta urtero zenbait gora behera sortzen dituen kontua da. Bizilagunen denkantsua, tabernen lana, parranda eta garbitasuna kontuan hartu eta elkarri ahalik eta traba gutxienez egin: horixe izan

da Rebollo zinegotziaren ustetuz, hitzarmen horren oinarritzko planteamendua. Akordioaren puntu nagusiak: 1) Komun portatitak jartzea. 2) Garbitasuna haunditzea. 3) Udal pertsonal eta udaltzaingo gehiago egotea. 4) Goizalderako kontainerrak hustutzea. 5) Goizeko 01:00etatik aurrera kontsumizioak plastikozko basoetan ateratzea.

TABERNEN ORDUTEGIA
Tabernek bi ordutegi izango dituzte, bizilagunek, ostalariak eta udalak lortutako akordioaren arabera: urtarrilean eta apirilean, ostiraletik larunbatera taberna eta kafetegiak 02:00ak arte egongo dira zabalik; taberna berezi, pub, eta diskopubak 03:30ak arte. Otsailean eta martxoan: taberna eta kafetegiak 03:00ak arte; besteak 04:30ak arte.

Bestalde, akordio honekin batera tabernen urte osoko ordutegi berezia ere lotu da. Tabernariak eta Kaxko auzo elkarteak konforme dira lortutakoarekin, baina, bakoitzak gehiago nahi du. Tabernariak 04:30ak arte nahi zuten, lana garai honetan egiten dutelako. Bizilagunek tabernariengandik detaile gehiago eskertuko lukete, nahiz eta onartu gauza hobetzen dijoala. □

BI ISTRIPU ATZO HERNANIN

Kotxe eta kamioiak elkar jo dute Ereñotzun

■ Kotxe gidaria (Aranokoa) ospitalera eraman zuten ■ Osiñagan, butano kamioia bidetik atera zen



Kotxea, istripua izan eta gero.

ATZO goizean bi istripu izan ziren Hernanin. 08:15ak inguruan, butano kamioia erriora amildu zorian geratu zen. Osiñagan, Errotaran Goikoa eta Erdikoaren artean. Dirudienez, baserri ondoko bidetxurrean maniobra egiten hasi eta atzeak aldegin zion. Suertez, ez zen erriora erori eta txoferra bere kabuz atera zen. 11:00ak inguruan atera zuen gruak kamioia.

Ereñotzun, Ubarretoko kurban, kotxeak eta kamioiak aurrez aurre jo zuten elkar, 10:30ak aldera. Kotxe gidaria ospitalera eraman zuten. Beste zauriturik ez zen izan. Badirudi, Aranotik zetorrela kotxea eta kurbatik atera zenean, Arano aldera zijoan kamioia jo zuela. Ertzantzak ez du istripuaren inguruko xehetasunik eman. □



Kamioia erdi erorian geratu zen, Osiñagan.

BAI EUSKARARI

Firma ekitaldi publikoa gaur, Plaza Berrian

HERNANIN 80 gizarte erakundek hartu dute euskera normalizatzeko konpromisoa. Gaurko firma ekitaldia 'Bai Euskarari Akordioa Hernanin' elkarteak antolatu du. 12:00etan da. □

ATLETISMOA

200 'atleta' gaur eskolarteko probetan

ATLETISMO probak izango dira gaur nagusi, eskolarteko kirolean. Goizeko 11:00etan hasita, kategoria infantil eta alebiko 200 atleta gazte ibiliko dira. Proba eskualde mailakoa da eta denera, 200 ume ibiliko dira; ehundik gora hernaniarrak. □

FUTBOLA

Oiartzun-Hernani gaur

Ugaldetxo futbol zelaian jokatu du gaur Hernanik, 15:45etan. Goian jarraitzeko irabazi baherra du. □

ESKUBALOIA

Hernani-Urdaibai gaur kiroldegian

Urdaibai lider dijoa. Gaur, 19:00etan jokatu dute. □



Igande eta jai egun guztietan dantzaldia

19:30etatik aurrera
OIALUME AUZOA - 943 55 29 38



Antziola-Motor Zorionak eta urte berri on!

Antziola-Motor

- ▶ Kotxe berri eta aukerako salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

Ikusi al duzu Mondeo berria?



Antziola Motorren ikusi eta probatu egin dezakezu.

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI



Poltsak, lepokoak, pitxiak, lurrinak eta abar

MERKEALDIETAN GAUDE

URDIN Osagarri Denda
Montebideo kalea 1
(EPO eta atletismo pista artean)
- HERNANI -



ESKEINTZAK

kotxerako osagarriak antenak
esku libre fijoak
instalazio gabeko esku libreak
soproteak



Telemar

ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, 943 33 26 00

Gaur 25 urte jarri zuten ikurrina Hernanin

■ Ikurrina legalizatu zenean, 1977ko urtarrilaren 19an, pleno berezia egin eta udaletxeko balkoian jartzea erabaki zen ■ Ikaragarrizko jende pilak bildu ziren plazan eta kaleetan.



Hernanin ikurrina jarri zeneko hiru momentu. Goian ezkerrean, Ignazio Iruin alkatea plenoa ikurrina jartzea onartzean. Eskubian, Iruin eta Lapazaran ikurrina jarrita. Behean, Hernaniko plaza leporaino beteta. (Argazkiak: Biyok; Udal Artxiiboak eta Iruinek utziak).

GAUR 25 urte jarri zen ikurrina udaletxeko balkoian. Franco Jenerala hil eta handik urtebete eta bi hilabete eskasera. Asteazkena zen, seguruenak askok eta askok ilusio haundienarekin bizi zuten eguna. Udalak arratsaldeko 19:00etarako pleno berezia deitu zuen; eta, 19:15-etarako "euskaldun guztien bandera" Hernaniko Udaletxean jarrita zegoen, herriko bandera eta bandera espainolarekin batean. Plazan ez zen arimarik ere kabitzen.

MARTIN VILLAREKIN BILERA
1977an Ignazio Iruin zen Hernaniko alkate eta egun haiek ondo gogoan dauzka oraindik. Ikurrina legalizatu aurreko egunean Iruin eta beste alkate batzuk Madrilen bildu ziren Martin Villa orduko Barne Ministroarekin. "Zer nahi duzue?", Martin Villak; "Ikurrina jartzea, zer nahiko dugu ba! Baina, legalizatu egin behar duzu eta biharko periodiku guztietan garbi gelditu dedila hori" Iruin eta beste alkateek,

"bestela bihar hemen izango gaituzu berriz." Martin Villak onartu egin zuen ikurrina jartzen uztea, baina, bandera espainolarekin batean jartzekotan. Eta halaxe egin behar izan zuten.
"HORI EZ DA BERRIZ PASAKO"
Urtarrilaren 19 hartan egunkariak ikurrina legalizatu zela zekarten. Udaletxe askotan plenoa egin eta balkoian ikurrina jartzea erabaki zuten. Ignazio Iruinek nostalgiaz go-

goratzen du Hernaniko plaza jendez gainezka ikusten den argazkia: "hor ez dago zatirik, ez ezkerrik eta ez eskubirik. Hor denok geunden. Hori ez da berriz pasako" dio oraingo panorama ikusita. "Orain orduan baino okerrago gaude. Bakoitza bere aldetik dabil eta horrela ezin da".
Orduko kronikak diotenez, festa ederra eta ikurrina marea izugarria izan zen. Ikurrina, udaletxeko balkoian, ikurrina jendearen eskuetan, eta ikurrina taberna eta soziedetan. □

Babes Ofizialeko etxeetan sartzeko baseak onartu dira

■ PLENOA izan zen udalean joan den ostegunean. Bertan onartu ziren Puig-eko Babes Ofizialeko etxeetan sartzeko baseak. Alegia, zer baldintza bete behar dituen pisu baten sortean sartu nahi duenak. Gobernu taldearen botoekin onartu zen. PSE-EE abstenitu egin zen, baseak egitean parte hartu ez dutelako. EA-EAJ ere abstenitu egin zen, baseak gaztelera hutsean idatzita zeudelako. Gobernu taldeak esan zuen euskeratzen bukatzeko behar adina denbora ez zutela izan, baina, horretan ari direla. □

Igerilekuan bi monitore jarriko dituzte umeekin jolas egiteko

■ Bihar izango da 10:30etatik 12:30etara.

KIROLDEGIKO igerilekuan bi monitore eta jokuak jarriko dituzte inguratzen diren umeez igerian eta jolasean egin dezaten. Bi kale hartuko dituzte horretarako eta jendeak igeri egitera joateko auke-

ra ere izango du. Gurasoren batek bere umeekin jolas egin nahi badu, bertako jolasak ere izango ditu aukeran.
Printzipioz bihar izango da, baina, erantzuna ona bada gehiagotan egingo dute. □

25 URTE IKURRIÑA JARRI ZELA

Urtarrilaren 19an 25 urte betetzen dira lehenengoz ikurriña jarri zela ofizialki udaletxeko balkoi nagusian. Gertaera honek aurrerapauso garrantzitsua suposatu zuen Euskal Herriaren askatasunerantzko bidean, izan ere, diktadurako garai gogorretan euskaltasuna adierazten zuen edozein ikur edo zeinu bortizki erreprimitua zen.

Egun hau gogora ekartzearekin batera, une hunkigarri eta itsaropentsu haiek biziaren zizkigutenak aipatu nahi ditugu, Ignacio Iruin alkatea buru zela.

Honekin batera adierazten dugu orain dela 25 urte aurrerapauso suposatu zuen bezalako gertaerak garratzen jarraituko dugula eguneroko lanaren bidez, beti ere Euskal Herriaren askatasuna lortzeko helburuarekin.

Hernaniko Batasuna

KIROLAK - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	WATERPOLOA	TALDEAK	NON	NOIZ	BOLEBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ
Gorengo maila	Oisartzun-Hernani	Ugaldetxo	Gaur, 15:45	Euskal Hko. Liga	Hernani-Askartza	Kiroldegis	Bihar, 14:00	1. Autonomikoa	Hernani-La Rioja	Kiroldegis	Gaur, 16:30
Emakumezkoak	Hernani-Touring	Zubieta	Gaur, 18:30	Euskal Hko 2. Maila	Hernani B-Askartza	Kiroldegis	Bihar, 12:00	ESKUBALOA	TALDEAK	NON	NOIZ
1. Erregionala	Vasconia-Hernani	Anoetan	Gaur, 18:00	EuskalHko. Neskak	Hernani-Askartza	Kiroldegis	Bihar, 13:00	Euskal Herriko liga	Hernani-Urdaibai	Kiroldegis	Gaur, 19:00
Gazteak. L. Naz.	Hernani-Harenas	Zubieta	Gaur, 16:30	ERRUGBIA	TALDEAK	NON	NOIZ				
Gazteak Ohor.	Hernani-Sto. Tomas	Zubieta	Bihar, 12:30	1 Euskal Liga	Hernani-Iruña	Landare	Bihar, 12:00				
Kadeteak Ohor.	M ^o Bihotza-Hernani	Matigoxotegi	Gaur, 10:30	Jubenilak. Euskal Liga	Durango-Hernani	Durango	Gaur, 16:00				
Kadeteak 2. Maila	Hernani-Kostkas	Zubieta	Gaur, 09:30	Kadeteak. Lagun.	Iruñ-Hernani	Playsundi	Gaur, 11:00				
Haurren Ohor.	Hernani-Touring	Zubieta	Gaur, 18:30								
PELOTA	BIKOTEAK	BIKOTEAK	NON	NOIZ	PELOTA	BIKOTEAK	BIKOTEAK	NON	NOIZ	ZERBITZUAK	
Euskal Herriko Txapelketa					Udaberri Txapelketa					☎ TELEFONOAK	
Eskuz bana. Kad.	Mikel Arrieta	Intxaurrondo	Kiroldegis	Gaur, 16:00	Paleta larraz.	Lizea.-Lujan.	Oizango	Kiroldegis	Gaur, 16:00	▶Taxiak:	943 550093
Eskuz bana. Jub.	Adurtza	Alvarez-S. Sebas.	Gasteiz	Gaur, 16:00	Paleta motza.	Gasteleku	Ubarretxena-Galsrza	Andosin	Gaur, 17:00	▶Udalzaingoa:	943 333288
Paleta Goma. Jub.	Burutar.-Vale.	Aufamendi A.	Kiroldegis	Gaur, 16:00	Eskuz Kad.	Zaspituri	Gurrutx.-Gorrotza	Amezketza	Gaur, 11:00	▶DYA:	943 464622
Paleta Goma. Jub.	Hoz-Lujanbio	Aufamendi b.	Kiroldegis	Gaur, 16:00	Kronika txapelketa					▶Autobusak	943 556662
Paleta Goma.	Mansis.-Martin.	Errekalor	Kiroldegis	Gaur, 16:00	Eskuz bana.	Aritz-Mikel	Alvarez-Arruti	Tilosetan	Gaur, 16:00	▶Anbulatorioa:	943 557750
Gipuzkoako Txapelketa					Eskuz bana.	Joxe-Zelaia	Garmendia-Zabala	Tilosetan	Gaur, 16:00	▶Jokalari anonimoak	943 331103
Eskuz bana. Inf.	Zurriola	Fernandez-Ojuel	Atano III	Gaur, 16:00						▶Egunez: Gomez	Nagusia 15
										☎	943 554892
										▶Gauetz: Ansa	Andoain. Ondarreta
										☎	943 591302